

AZAROAK 25-EKO MANIFESTUA

Gu Elgoibar BHI-ko Elkarbizitza-Hezkidetza taldeko ikasleak gara eta manifestu honen bidez gaurko egunaren garrantzia helarazi nahiko genizueke. Gaur Azaroak 25 da, Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerarazteko Eguna, eta ezinbesteko eguna da guretzako. Emakumeen aurkako indarkeria gure gizartean txertatua daukagun indarkeria mota da, eta horren gaitzena da gizartearen erdiak sufritu dezakeen indarkeriaz ari garela honetaz hitz egiten dugunean. Gaur egun, bi emakumeetatik batek gure gizartean pairatu izan du genero indarkeriaren azpimotetako bat, baita orain hau entzuten ari zareten emakume askok ere.

Azken urteetako bilakaera ona eta txarra izan da aldi berean. Ona izan da, izan ere, jende gehiagok salatzen duelako indarkeria mota hau aurrekoetan baino, baina txarra aldi berean salaketa asko egon direlako, baita gertakari asko ere, indarkeria honen desagerrarazpenerako asko falta dela erakusten dutenak. 2025 urte honetan kasu, EAEko indarkeria matxistagatik eraildako emakumeak 8 dira gaur arte. Urteetako bilakaerari dagokionez, Bizkaian biktimen kopuru handiena dago, 47 emakume erailak izan baitira erregistroak daudenetik, Araban 16 eta Gipuzkoan 17. Guztira 80 emakume erailak izan dira gurean. Salaketei dagokionez, esan bezala, kopurua gora doa: 2009an 4660 emakumek salatu zuten beraien aurkako indarkeria motaren bat; 2022an, berriz, 6143 pertsona izan ziren biktima.

Azkenengo kasu azpimarragarriena Zarautzen izan zen: 53 urteko emakume bat eraila izan zen eta 47 urteko gizon bat atxilotu zuen ertzaintzak giza hilketa egotzita. Bestalde, 32 urteko gizon bat atxilotu zuen duela gutxi Iruñeko Udaltzaingoak pasa den azaroaren 12an emakume bati sexu eraso bat egitea leporatuta.

Aspaldiko sasoiarekin alderatuta, asko lortu da gizartean indarkeri mota honen inguruko kontzientziazioan, baita honi aurre egiteko beharraren indartzean ere, bai sozialki zein administrazioari dagokionez. Hala ere egindako lana ez da nahikoa, eta beste urtebetez zuen inplikazioa eskatzen dugu benetan gai honi aurre egiteko. Ikastetxeei eskatzen diegu honi buruz gehiago hitz egitea eta ikasleengan arazo honen inguruko kontzientziazioa bultzatzea, oso larria iruditzen zaigulako. Azkenean, hezkuntza eredu eta erreferente izan behar du gai honetan eta ikastetxeak leku seguruak izan behar dira emakumeentzako, indarkeria honen aurkako borrokan eragile ezinbestekoak izanik.

Mezu honekin adierazi nahi dugu ez gaudela bakarrik eta laguntza behar dugunean beldurrik gabe eskatzeko beharra izan behar dugula, baita gure ikastetxean ere. Ikastetxeak arazoiari aurre egiteko konpromisoa hartu behar dute eta hauek leku seguruak izateko bidean ahaleginak egin behar ditugu denon artean. **GOGORATU EZ GAUDELA BAKARRIK!!!**

